

Maiatzaren lehena

***Kalera irtengo gara
gauzak aldatzen diren arte***

Maiatzaren lehen bakoitzean
milioika pertsona kalera ateratzen dira
lanaren eta lanen duintasuna
aldarrikatzera,

langileak direla
harrotasunez esatera

Esaten digute mundua
enpresek egiten dutela...

...baina urtero milioika pertsonak
erantzuten dute, mundua zaintzen
dutenek eta bizigarri egiten dutenek
egiten dutela, izan enpresen,
patriarkatuaren zein kolonialismoaren
uztarpean...

...ala lan liberatuaren bidez

Aberastasunaren iturri bakarra
gizon eta emakumeen lana dela
aldarrikatzen dute,
eta aberastea, gertatzen denean,
besteen lanaren jabekuntzaz
egiten dela

Maiatzaren lehen honek, urtero bezala,
aurpegi zehatzak ditu:

1. Emakumeena, zeintzuen diskriminazioa
mantentzen eta okertzen ari den...

...izan soldaten arteko aldeagatik,
izan ez delako aitortzen zaintza
eta bizitzaren iraunkortasunerako lana

2. Gazteena, zeintzuei etorkizuna ukatzen zaien

3. Gerra eta miseriatik ihes egiten duten milioika langileena...

...zeintzuek gure kontinentearen ateetan aterpea eskatzen ari zaizkigun

4. Herri klasearena, zeintzuei austeritate politikak inposatzen ari zaizkien

5. Edo nazio baten aurpegia, gurearen modukoa, zeinari oinarrizko eskubideak ukatzen zaizkion...

...negoziazio kolektiboarena adibidez

Horregatik, urtero, milioika langile kalera ateratzen dira borroka kolektiboaren gaurkotasuna berrestera.

Beren arazoak konpondu nahi lituzkete elkarrizketa bidez...

...baina hori, askotan, ez da posible.

Horregatik indarrari indar gehiagorekin erantzuten diote, klasea klasearen kontra

Hala, Maiatzaren lehenero milioika langile
mobilizatzen dira balioan jartzeko
antolakuntza sindikala,
kontzientzia hartze kolektiboa,
elkarrekiko babesa,
indarra ematen duen batasuna

Europa abegikor baten alde,
Emakumeen lana aintzat har dadin
gizonen lanaren moduan
Gure gazteen etorkizunaren alde
1.200 eurotik gorako soldataren alde
Bere etorkizunaren jabe den nazioaren alde

MAIATZAK 1

**GEHIAGO
BALIO DUGU**

MANIFESTAZIOAK

IRUÑEAN

PLAZA DE LA CRUZ
GURUTZE PLAZA

11:30etan

BILBON

SAGRADO CORAZON
JESUSEN BIHOTZA

11:45etan

ELA
EUSKAL SINDIKATUA